

Azpeitian zer?

Udal aldizkaria

**Bulego bat,
energiari bideratuta**



Telefono interesgarriak

Zentralita	943 15 72 00
Hirigintza	943 15 71 91
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92
Kultura	943 15 70 68
Kirolak	943 15 00 95
Hezkuntza	943 25 50 06
Parekidetasuna	943 15 79 28
Emakumeen Txokoa	943 15 70 55
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16
Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60
Gaztelekua	943 15 71 61
Eguneko Zentroa	943 15 74 96
Liburutegia	943 15 71 95
Udaltzainak	943 15 13 13
Igerilekua	943 81 41 21
Kiroldegia	943 81 30 69
Udal Euskaltegia	943 81 19 47

Ale honetan zer?

Energia bulegoa	3
Ekindar.....	6
Igerilekua.....	7

Azpeititik kanpo bizi arren, zure etxean jaso dezakezu
Azpeitian Zer? aldizkari hau posta bidez. Egin eskaria
943 15 71 85 (Alkatetza) telefonon.

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala · Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: Azpeitiko Udala · Diseinua: Sorland
Maketazioa: Sorland
Ale kopurua: 7.000 · L.G: SS - 1148/91

Herritarren Arreta Zerbitzua



Azpeitiko Udaleko lehen solairuan aurkitzen da Herritarren Arreta Zerbitzua. Dokumentuen erregistroa, errolda agiria atera, eskaera orokorrak zein lizentzia eskaerak edo kontsultak egiten dira bertan. Neguko ordutegian, astelehenetik ostiralera, 07:30etik 14:30era izaten da zabalik; ostegunetan salbu. Egun horretan, 07:30etik 19:00etara, etenik gabe, eskaintzen zaie zerbitzua herritarrei.

Energia bere osotasunean landuko duen bulegoa

Energia fakturretan agertzen den terminologia, oro har, ulergaitza izan ohi da herritar askorentzat, eta informazio falta hori muga bihurtzen da zenbait erabaki hartzeko orduan. Energia sektoreko teknologietan ere berrikuntza handiak egon ohi dira, eta ez da erraza izaten horien guztien berri izatea. Gauza bera gertatzen da lege, betebeharrak, dirulaguntza eta abarrekin ere. Faktore horiek kontuan hartuz, eta herritarrei nahiz herriko eragileei energiaren inguruko aholkularitza integrala emateko asmoz, energia bulegoa irekiko du Azpeitiko Udalak. Done Jakue kalean egongo da, Frontoia Txiki ondoan.

“Datozen urteetan energiaren gaiak sekulako pisua hartuko duela ikusten dugu; izan ere, zuzenean ez ezik, zeharka ere beste arlo askori eragiten die: mugikortasunari, industriari, eraikuntzari... Erregai

fosilak agortzera doaz, eta, ezinbestean, energia sortzeko alternatibak bultzatzea, energia berriztagarrietara jotzea eta kontsumoa murriztea dagokigu”, esan du Joanes Amenabar udaleko Ingurumen batzordeburuak. Energia bulegoaren bidez, udalak energiaren gaiari “pisu bat” eman nahi diola azaldu du. “Aurrez etxebizitza bulegoa sortu genuen bezala, uste dugu energiak ere behar duela bere espazioa”.

Herritarrei nahiz herriko eragileei energiaren inguruko aholkularitza integrala emateko asmoz, energia bulegoa irekiko du Azpeitiko Udalak





Hainbat gairi buruzko aholkularitza

Herritarrei informazioa eta argibideak ematea izango da, batik bat, energia bulegoaren lana, eta doako zerbitzua izango da. Besteak beste, honako egoera hauetan jo ahal izango dute herritarrek bulegora: fakturak ulertzeko laguntza behar dutelako, energia berriztagarriren baten proiektua finantzatzeko dauden laguntzei buruzko informazioa nahi dutelako, eraikinen birgaitze energetikorako eman beharreko urratsak zein

Herritarrei informazioa eta argibideak ematea izango da energia bulegoaren lana, eta doako zerbitzua izango da.

diren ez dakitelako, auto elektrikoa erosteko egon daitezkeen laguntzen berri izan nahi dutelako eta abar. Herritarrek ez ezik, komertzioek, enpresek eta elkarteek ere izango dute energia bulegora jotzeko aukera.

Langile bat egongo da bulegoan, lanaldi osoan, eta aurrez aurrekoa izango da zerbitzua, telefono deiei eta emaileri ere erantzungo dien arren. Hasieran behintzat, txanda bidez funtzionatuko du. "Bulegoak espazio irekia du, eta joaten diren horien informazioa babestea nahi dugu; adibidez, ez egotea inor inguruan gure fakturei edo bestelako informazio pertsonalari buruz ari garenean".

Joanes Amenabar Ingurumen batzordeburuaren arabera, kontsultarik gehienak fakturen ingurukoak izango direla uste dute, baina, bulegoaren bidez, harago ere joan nahi du udalak. "Energia



HARREMANETARAKO

Telefonoa: 943 119 806

Emaila: energia@azpeitia.eus

Bulegoaren ordutegia:

Astelehen, astearte eta
ostiraletan, 10:00etatik
14:30era.

Asteazken eta ostegunetan,
17:00etatik 19:30era.

efizientziari garrantzia eman nahi diogu,
izan etxeetan, industrian edo merkataritzan".
Era berean, informazioa emateaz gain,
herritarrek beraiek egiten dituzten
proposamenak ere beso zabalik hartuko
dituztela nabarmendu du, horretarako
aukera ere eskainiko baitu bulegoak.



**“Energia
efizientziari
garrantzia eman
nahi diogu, izan
etxeetan, industrian
edo merkataritzan”**

Joanes Amenabar



ENERGIA BULEGOAK ESKAINIKO DITUEN ZERBITZUAK

- **Faktura energetikoa**
(gasa eta elektrizitatea):
 - Faktura optimizatzeko aholkularitza zerbitzua.
 - Fakturen azalpena.
- **Dirulaguntzak:**
 - Energia berriztagarrien proiektuak finantzatzeko laguntzen inguruko informazioa eta aholkularitza.
 - Autokontsumoko eta autokontsumo partekatutako prozesuen alderdi legalei buruzko informazioa eta aholkularitza.
 - Eskuragarri dauden dirulaguntzen deialdien inguruan informazioa.
 - Dirulaguntzen kudeaketarako laguntza.
- **Birgaitze energetikoa:**
 - Fatxaden isolamendua (horma, leihoak, lurra, sabaia).
 - Ezaugarriak, onurak, dirulaguntzak...
- **Teknologia berriztagarrien inguruko informazioa eta ezaugarriak azaltzea:**
 - Eguzki-energia termikoa, eguzki-energia fotovoltaikoa, aerotermia, hidrotermia, geotermia, biomasa, minieolikoa eta hidroelektrikoa.
- **Eraikinen eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria:**
 - Informazioa eta betebeharrak legalak.
- **Difusio eta komunikazio lanak:**
 - Prestakuntza: Herritarrei zuzendutako prestakuntza saioak identifikatu eta bideratu. Enpresei zuzenduta: arkitektoei, finka-administratzaileei...
 - Hitzaldiak.

Martxan da Ekindar kooperatiba

EKINDARREN LEHEN FAKTURAK, IRISTEAR

Urtarril bukaeran egin zuen bazkideen batzarra Ekindar kooperatibak, Soreasu antzokian, eta orduan iragarritako epeak bete ditu: martxoan proba fasea burutu zuen eguzki plaken parkeak, eta behin fase hori gainditutakoan, martxan hasi zen. Ondorioz, lehen fakturak jasotzear daude bazkideak; hau da, apirilean izandako kontsumoen fakturak maiatzaren hasieran jasoko dituzte.

Faktura horien gaineko zalantzaren bat izanez gero, Done Jakue kalean irekiko den energia bulegora jo ahal izango dute bazkideek, kontratuak beste konpainiekin dituzten herritarrek bezalaxe. Ekindarri lotutako gainerako gaiei buruzko argibideak ere bulego horretan emango dira.

Azpeitiko Udalak Energiaren Euskal Erakundearekin eta Mondragon Korporazioko Krea taldearekin eratu zuen Ekindar kooperatiba. Urrestillan eraiki dute parkea, hektarea bateko

lursailean, eta 25 urtez argindarra sortzeko aukera emango du. Gaur egun, 536 bazkide eta zazpi bazkide laguntzaile ditu.

DIRULAGUNTZA

Aurrera begira, beste hainbat proiektu ere egingo dira Ekindarren bueltan. Besteak beste, Energia Aurrezteko eta Dibertsifikatzeko Institutuak 1,2 milioi euroko dirulaguntza bat onartu dio kooperatibari. Laguntza hori jaso ahal izateko, eguzki plaken azpiegitura finantzatzeaz gain, auto elektrikoentzako hamar birkarga postu bikoitz jarri beharko ditu herrian, eta kudeaketarako aplikazio bat ere sortu beharko du.

Aplikazio horren bidez, sortzen eta kontsumitzen duten energiaren berri izango dute bazkideek, eta kontzientziatorako tresna ere izango da.




Igerilekuko kontsumoa, nabarmen behera

Igerilekua da energia gehien kontsumitzen duen udal eraikina, eta, haren atzetik, Soreasu, Izarraitz pilotalekua, Karmelo Etxegarai ikastolako Lehen Hezkuntzako eraikina, udal kiroldegia, Karmelo Etxegarai Haur Hezkuntzako eraikina, azoka plaza eta Garmendipe futbol zelaia.

Gehien kontsumitzen duena izan arren, azken hamar urteetan, nabarmen gutxitu da

igerilekuaren kontsumoa ere: urteko igual hobeto 2,37 GWh-tik 1,37 GWh-ra. Kontsumoa murriztu ahal izateko, hainbat eratako esku-hartzeak egin daitezkeela ere erakusten du igerilekuak: geotermia Sanjuandegiko ur termalen beroa aprobetxatzeko, plaka fotovoltaikoak energia sortzeko, sandwich teilatua isolamendua hobetzeko, LED argiak...

ENERGIA MURRIZTEKO ESKU HARTZEAK IGERILEKUAN





Etxebizitza Bulegoa

Enparan Kalea 34

943 15 71 83

aberritzen@azpeitia.eus

Ordutegia:

**Udako ordutegia
(maiatzetik urrira)**

Astelehenetik ostiralera
8:00etatik 14:30era

www.azpeitia.eus